

LABek eta ELAk aldebakarreko burujabetza prozesu sozial baten alde egiten dugu



Garbiñe Aranburu eta Txiki Muñoz, LAB eta ELAko idazkari nagusiek, burujabetza prozesua bultzatzeko bi sindikatuek egiten duten irakurketa eta hartuko dituzten konpromisoak jasotzen dituen dokumentua aurkeztu dute. Aranbururen esanetan *“erabakitzeko eskubidea dugun herria gara, baina herrien eta langileen erabakitzeko eskubidea ukatzen duen estatu antidemokratiko baten parte ere bagara. Aurrera egin nahi badugu beraz Euskal Herriak bere burujabetza prozesua diseinatu behar du eta zentzu honetan, ELA eta LABek, gure ekarpena egin nahi dugu”*. Ezinbestean, *“bide hau aldebakarrekoa izango da”*, ziurtatu du Aranburuk. Hala ikusten ari gara Catalunya azken aste eta hilabeteetan. PPren Gobernuak, PSOE eta Ciudadanosen konplizitatearekin, edozein modutara zapuztu nahi du erreferenduma. Horregatik *“esanguratsua eta adierazgarria da ere Eusko Jaurlaritzaren elkartasun keinu falta eta distantzia hartu nahia Catalunya prozesuarekiko eta gainera erabat antidemokratikoa den gobernu bati egonkortasuna ematen dio”*. Aranbururen aburuz *“Catalunyako prozesuarekiko erakusten duten jarrera epelaren atzean burujabetzaren aldeko apustu eza dago”*. Bere iritziz Euskal Herriak bere prozesua egin behar du baina ez nolana hiko: *“prozesu sozialaz ari gara”*. Hain zuzen ere bizitzaren prekarizazioak ez du etenik, langileontzat ez dago errekupeazio ekonomikorik, desoreja sozialak handitzen ari dira... Egoera hau aldatzeko ezinbestean Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eraiki behar dugu. Aranbururen ustez *“herritar guztiei bizitza duina bermatzeko ahalmen politiko eta tresna instituzionalak izatea izan beharko luke autogobernuaren funtsa”*. Argi eta garbi dio LABeko idazkari nagusiak: *“Herri bat garela aitortu behar da, euskal herritarrok dugun erabakitzeko eskubidea aitortu behar da”*. Enplegu eta babes sozialeko gaietan ahalmen legegile osoa behar dugu, bestelako eredu ekonomiko eta sozial bat eraiki nahi dugulako, euskal herritar guztiek bizitza duina izan dezaten nahi dugulako. LABek eta ELAk ezaugarri horiek dituen burujabetza prozesua abiatzeko konpromisoa dugu eta bide hori jorratzeko prest dauden ezkerreko eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko aliantzak eraikitzea dugu helburu.

Dokumentu osoa irakurtzeko, sakatu [hemen](#).